



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**LANKIDETZA-HITZARMENA, ERESBIL-ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKOA, LIBURUTEGIEN ARLOAN LANKIDETZAN ARITZEKO ETA MUSIKAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTU-FUNTSAK ETA LEGE-GORDAILU BIDEZ SARTUTAKOAK GORDAILUAN LAGATZEKO**

Vitoria-Gasteizen,

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE FUNDACIÓN ERESBIL-ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOA Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, PARA LA COLABORACIÓN EN MATERIA BIBLIOTECARIA Y LA CESIÓN EN DEPÓSITO DE FONDOS DOCUMENTALES RELACIONADOS CON LA MÚSICA E INGRESADOS MEDIANTE DEPÓSITO LEGAL**

En Vitoria-Gasteiz,

#### HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Ibone BENGOETXEA OTAOLEA andrea (ondorio hauetarako helbidea: Donostia-San Sebastian 1, Vitoria-Gasteiz).

Bestetik, Pedro María LEIÑENA MENDIZABAL jauna ondorio horretarako, helbidea: Alfonso XI kalea 2 ,Erreterria).

#### REUNIDOS

De una parte, Dña. Ibone BENGOETXEA OTAOLEA, con domicilio a estos efectos en Vitoria-Gasteiz, calle Donostia-San Sebastián, 1.

De otra, Don Pedro María LEIÑENA MENDIZABAL, con domicilio a estos efectos en Erreterria, calle Alfonso XI, 2.

#### PARTE HARTU DUTE

Lehenak, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu gisa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua izendatzeko Lehendakariaren ekainaren 20/2024 Dekretuaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari gisa jardunez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak ematen dizkion ahalmenekin bat etorritik, eta Gobernu Kontseiluari aldeaz aurretik bidali zaio,

#### INTERVIENEN

La primera, en su calidad de Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, según el Decreto 20/2024, de 24 de junio, del Lehendakari, de nombramiento de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística y, actuando en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con las facultades que le atribuye el Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, y habiendo sido previamente remitido para su conocimiento al Consejo de



jakinaren gainean egon dadin, 2026eko apirilaren 21ean egindako bilkuran.

Bigarrenak, ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz, "ERESBIL" Patronatuaren Zuzendaritza Batzordearen 2020ko ekainaren 19ko erabakiarekin bat etorritz..

Bi Aldeak, euren karguei berezko zaizkien funtzioak bete dituzte, elkarri hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa aitortu diote, eta ondorio horretarako,

## **ADIERAZI DUTE**

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.20 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio Estatuaren titulartasunekoak ez diren liburutegien eskumen eksklusiboa.

II.- ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak musikan espezializatutako dokumentu-bilduma bat gordetzen du, edozein bitartekoren bidez ekoizitakoa, analogikoa zein digitala, Euskal Musika Ondarea zaintzeko eta zabaltzeko, bai eta informazio-baliabideak eskuratzeko eta zabaltzeko eta ezagutza sortzeko prozesuetan laguntzeko ere, zentroaren helburuak lortzen laguntzeko, horrek dakartzan jarduerak modu jasangarrian eta sozialki arduratsuan eginez. Gaur egun, 300.000 musika-dokumentu osatzen dute bilduma.

III.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak honako hau xedatzen du 4. kapitulan: "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak lankidetzan jardungo du toki-administrazioekin eta lurralde historikoetako, Estatuko, beste autonomia erkidegoetako eta euskararen hizkuntza-esparruko liburutegi-erakundeekin, liburutegi-zerbitzuak sustatu eta hobetzeko".

Gobierno en sesión celebrada el día 21 de abril de 2026.

El segundo, en nombre y representación de Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa, de conformidad al acuerdo de la Junta Rectora del Patronato "ERESBIL", de 19 de junio de 2020.

Las dos Partes, actúan en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para otorgar el presente convenio, y al efecto,

## **MANIFIESTAN**

I - Que el Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su art. 10.20, reconoce competencia exclusiva a la Comunidad Autónoma de Euskadi, en materia de bibliotecas que no sean de titularidad estatal.

II.- Que Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa conserva una colección documental especializada en música, producida por cualquier medio, tanto analógico como digital, con el objetivo de preservar y difundir el Patrimonio Musical Vasco, así como de facilitar el acceso y la difusión de los recursos de información y colaborar en los procesos de creación del conocimiento a fin de contribuir a la consecución de los objetivos del centro, realizando las actividades que esto implica de forma sostenible y socialmente responsable. Actualmente esta colección está compuesta de unos 300.000 documentos musicales.

III.- Que la Ley 11/2007 de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi prevé expresamente en su artículo 4 que la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi colaborará con las administraciones locales, así como con las instituciones bibliotecarias de los territorios históricos, del Estado, de otras Comunidades Autónomas y del ámbito lingüístico del euskera en orden al fomento y mejora de los servicios bibliotecarios.

**IV.-** Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak 6. artikuluan honela definitzen du Euskadiko Liburutegien Sistema: “Euskadiko Liburutegi Sistema Euskal Autonomia Erkidegoko organo, liburutegi eta liburutegi-zerbitzuen multzo antolatua da eta liburutegi baliabide guztiak hobeto aprobetxatzea du helburu, elementu guztien koordinazioan eta lankidetzan oinarrituta”.

**V.-** Euskadiko Liburutegien azaroaren 26ko 11/2007 Legeak 7.e) artikuluan aurreikusten du liburutegi espezializatuak eta irakurketa publikoko sarekoak ez diren gainerako liburutegiak Euskadiko Liburutegi Sistemari sartuko direla, liburutegiaren titularraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kulturaren alorreko eskumenak dituen sailaren arteko hitzarmen bidez.

**VI.-** Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak 9. artikuluan honako hau adierazten du beren-beregi: “Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak bibliografia-informazio irispidea bermatuko die Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiei, katalogo kolektibo bat sortuz”.

**VII.-** Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa ezartzen duen 389/2024 Dekretuaren 11.2.4 f) artikuluan arabera, sail honi dagokio, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren bidez, lege-gordailuaren eta ISSNaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion eginkizunak betetzea, Eusko Jaurlaritzari esleitutako eskumenen esparruan, eta, ildo horretan, lege-gordailuaren izapideak betetzeko gordailututako elementuen aleak prozesatuta eta kontserbatuta dauzka.

**IV.-** Que la Ley 11/2007 de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi define en su artículo 6 el Sistema Bibliotecario de Euskadi, como el «conjunto organizado de órganos, bibliotecas y servicios bibliotecarios de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que tiene como fin garantizar el mejor aprovechamiento de todos sus recursos bibliotecarios, mediante la coordinación y cooperación entre sus diversos elementos».

**V.-** Que la Ley 11/2007, de 26 de octubre de Bibliotecas de Euskadi en su artículo 7.e) prevé que las bibliotecas especializadas y el resto de las bibliotecas que, no formando parte de la red de lectura pública, se integren en el Sistema Bibliotecario de Euskadi mediante convenio entre el titular de la biblioteca y el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia de cultura.

**VI.-** Que la Ley 11/2007 de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi señala expresamente en su artículo 9, que «El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura garantizará el acceso a la información bibliográfica de las bibliotecas integrantes del Sistema Bibliotecario de Euskadi mediante la creación de un catálogo colectivo».

**VII.-** Que de conformidad al artículo 11.2.4 f) del Decreto 389/2024, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura y Política Lingüística, este Departamento a través de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito legal tiene atribuido el cometido de ejercer las funciones que en materia de depósito legal e ISSN corresponden a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi dentro del marco de facultades atribuidas al Gobierno Vasco, y en tal sentido, tiene procesados y conserva los ejemplares de los elementos depositados para cumplir con los trámites del Depósito Legal.

**VIII.-** Kultura-ondarearen barruan, garrantzi berezia hartzen dute musika-dokumentazioak, gizakiaren eta haren ingurunearen lekukotza-multzoak baitira, modu ordenatuan bildu eta erakutsiak informatzeko, komunikatzeko eta hezteko, eta helburu horiek behar bezala lortzeko beharrezkoa baita berezko eta kanpoko funtsak eta bildumak zabaltzea eta haietarako sarbidea izatea.

**IX.-** ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioaren helburuetako bat da Euskal Autonomia Erkidegoan ondarezko musika-liburutegi eta -fonoteka gisa jardutea, Euskal Herrian musikaren garapenarekin lotutako euskarri oro kontserbatuz.

**X.-** Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak ekimen honetan parte hartzeko interesa adierazi du, eta bere titulartasuneko funtsak Euskadiko Katalogo Kolektiboaren esku jarri ditu.

**XI.-** Hitzarmen honek bete egiten du Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.c) artikulua xedatutakoa.

Era berean, hitzarmen hau, bere edukiaren arabera, Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo dago; izan ere, honako hau xedatzen du 6.2. artikuluan: "Lege honen eremutik kanpo egongo dira, halaber, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean".

**XII.-** Aurreko guztia aintzat hartuta, bi Aldeek Lankidetzak Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera:

**VIII.-** Que dentro del Patrimonio Cultural adquieren especial relevancia la documentación musical, por constituir conjuntos de testimonios del hombre y su entorno, recogidos y exhibidos ordenadamente con el fin de informar, comunicar y educar, y que la consecución adecuada de estos objetivos pasa por la difusión y el acceso a fondos y colecciones propias y externas.

**IX.-** Que Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa tiene establecida como una de sus metas funcionar como Biblioteca y Fonoteca musical patrimonial en la Comunidad Autónoma Vasca, mediante la conservación de todo soporte relacionado con el desarrollo de la música en Euskal Herria.

**X.-** Que Fundación Eresbil - Archivo Vasco de la Música ha manifestado su interés en formar parte de esta iniciativa, poniendo a disposición del Catálogo Colectivo de Euskadi los fondos de su titularidad.

**XI.-** Que el presente Convenio responde a lo previsto en el artículo 47.2.c) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Asimismo, este convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 "Estarán también excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".

**XII.-** Por todo lo que antecede, ambas Partes acuerdan la suscripción del presente Convenio de colaboración con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

### Lehenengoa.- XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioaren arteko lankidetzeta, bai liburutegien eremuan, bai Lege Gordailua kudeatzekoan.

ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa Euskadiko Liburutegi Sisteman integratzen da hitzarmen honen bidez, Bilgunea – Euskadiko Liburutegien Katalogo Kolektiboa egiten parte hartzeko, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak Lege Gordailuaren arloan esleituta dituen eskumenen arabera duen musika-dokumentazioaren zati bat gordailuan uzteko, eta bi aldeentzat interesgarriak diren beste zeregin katalogafiko eta bibliografiko batzuetan laguntzeko.

### Bigarrena.- ALDEEN KONPROMISOAK.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, katalogo kolektibo hori egitea eta mantentzea, parte hartzen duten erakundeei proiektuaren jarraipena bermatuz.

Beraz, dokumentu honen arabera, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Eresbil – Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioari ematea, euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailuaren

## CLAÚSULAS

### Primera.- OBJETO.

El objeto del presente Convenio es la colaboración entre el Departamento de Cultura y Política Lingüística y Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa, tanto en el ámbito bibliotecario como en el de gestión del Depósito Legal.

Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa se integra mediante el presente convenio en el Sistema Bibliotecario de Euskadi con el objeto de participar en la elaboración de Bilgunea – Catálogo Colectivo de las Bibliotecas de Euskadi, recibir en cesión para su depósito parte de la documentación musical que la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito legal del Departamento de Cultura y Política Lingüística dispone en virtud de las facultades que le vienen atribuidas en materia de Depósito Legal, y para colaborar en cuantas otras tareas catalográficas y bibliográficas sean de interés para ambas partes.

### Segunda.- COMPROMISOS DE LAS PARTES.

1.- A la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Cultura y Política Lingüística, le corresponde la elaboración y el mantenimiento de dicho catálogo colectivo, garantizando a las entidades participantes la continuidad del proyecto.

Asume, por tanto, en virtud del presente documento, los siguientes compromisos:

bidez sartutako musika-educiko lan bakoitzaren ale bat gordailuan lagata kontserba dezan. Entrega horiek erregularrak izango dira, urtean behin gutxienez, eta funtsak zerrendatzen dituen hartu-agiri baten bidez dokumentatuko dira. Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza arduratuko da dokumentuak lagatzeaz. Partitura bakoitzaren ale bat, musika-kasetea, musika-diskoa, musikaren CDa edo EAeko Administrazio Orokorraren lege-gordailuaren bulegoetan jasotako beste edozein musika-material ukigarri lagako da. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak hitzarmen honen bidez lagatako dokumentu-funtsen jabetzari edo atxikipenari eutsiko dio, bai eta funts horiek zuzenean kontsultatzeko eta kontsultatzeko eskubideari ere, ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioaren instalazioen erabileraren eta sarbidearen esparru orokorraren barruan.

b) Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak, lege-gordailuaren arloan esleituta dituen ahalmen arabera, musika-dokumentazioa bidaltzearen ondoriozko gastuak ordaintzea, bai eta garatutako programak koordinatu eta gainbegiratzeko ere.

c) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio Catálogo Colectivo de Euskadi-Euskadiren Liburutegien Bilgunea mantentzea, zeinean Eresbilen musika-dokumentazioaren katalogoa txertatuko den, eta dokumentu-funtsak eskuratu eta zabaltzeko eta katalogo hori erabiltzeko beharrezkoak diren programak

a) La entrega a la Fundación Eresbil – Archivo Vasco de la Música para su conservación mediante cesión en depósito de un ejemplar de cada obra de contenido musical ingresada mediante Depósito Legal de las publicaciones en soporte tangible. Tales entregas tendrán carácter regular con una frecuencia mínima anual y se documentarán mediante un acuse de recibo que relacione los fondos. La Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal se responsabilizará de dichas entregas de cesión documental que consistirán en la cesión de un ejemplar de cada partitura, casete musical, disco musical, CD musical o cualquier otro material tangible musical recibido en las oficinas de depósito legal de la Administración General de la CAE. La Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Departamento de Cultura y Política Lingüística, mantendrá la propiedad o adscripción de los fondos documentales cedidos mediante el presente Convenio, así como el derecho al acceso directo y a la consulta continuada de estos, dentro del marco general de uso y acceso a las instalaciones de Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa.

b) Corresponde al Departamento de Cultura y Política Lingüística sufragar los gastos derivados del envío de la documentación musical que la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal dispone en virtud de las facultades que le vienen atribuidas en materia de depósito legal y realizar la labor de coordinación y supervisión de los programas desarrollados.

c) Corresponde al Departamento de Cultura y Política Lingüística el mantenimiento del Catálogo Colectivo de Euskadi-Euskadiren Liburutegien Bilgunea, dónde estará incluido el catálogo de documentación musical aportado por

egitea, betiere dagozkion jabetza intelektualeko eskubideak errespetatu.

- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak akordio horren aipamen bat sartuko dute musika-informazioa eta haren produktuak zabaltzeko sortutako literaturan.

Eresbil, y la elaboración de los programas necesarios para el acceso y difusión de los fondos documentales y la utilización del citado catálogo respetando siempre los Derechos de Propiedad Intelectual que procedan.

- d) La Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco incluirá una mención de este acuerdo en la literatura producida para difundir la información musical y sus productos.

2.- ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

- a) Lineako argitalpenen eta argitalpen digitalen lege-gordailuaren arloan lege-gordailuaren bulegoiei esleitutako funtzioak betetzeko, lege-gordailuarentzat interesgarriak diren musika-lanak hautatu ahal izan ditzan eta editoreei eta ekoizleei dagozkien artxibo digitalak entregatzeko eskatu ahal izan diezaion. Artxibo digital horren kopia bat ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioan gordeko da, eta beste bat Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzari emango zaio.

- b) ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioari dagokio lege-gordailuaren bidez sartutako musikarekin lotutako dokumentu-unitateen prozesu teknikoari ekitea: jasotzea, katalogatzea, sailkatzea, ehuntzea, funtsak kokatzea eta kontserbatzea, aipatutako dokumentu-funtsen katalogoak zabaltzea eta lege-gordailuaren bidez jasotako musika-dokumentazioaren estatistikak

2.- La fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa, asume las siguientes obligaciones:

- a) Ejercer las funciones atribuidas a las oficinas de depósito legal en materia de depósito legal de las publicaciones en línea y publicaciones nacidas digitales, de modo que pueda seleccionar las obras musicales de interés para el Depósito Legal y solicitar a los editores y productoras la entrega de los archivos digitales correspondientes. Una copia de dicho archivo digital se conservará en Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa y otra será entregada a la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal.

- b) Corresponde a Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa acometer el proceso técnico de las unidades documentales relacionadas con la música ingresadas a través del Depósito Legal: recepción, catalogación, clasificación, tejuelado, colocación y conservación de los fondos, difusión de los catálogos de los citados fondos documentales y elaboración de estadísticas de la documentación musical recibida

egitea. Funts horiek prozesatzeko orduan, katalogazio-arau estandarrak eta Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak Liburutegien eta Lege Gordailuaren Liburu eta Liburutegien Zerbitzuaren bidez bidal ditzakeen gomendio teknikoak beteko dira.

c) Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak funts bereizi gisa gordeko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokion Lege Gordailuaren bidez sartutako materiala, eta emandako funtsak behar bezala gordailutu eta kontserbatzeko lokal eta altzari egokiak izendatzeaz, funts horiek zaintzeaz eta interes ikertzailea egiazta dezaketen balizko erabiltzaileei kontsultatzea errazteaz arduratuko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak material horri buruz dituen ahalmen gorenei kalterik egin gabe, Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa da funts horiek behar bezala kontserbatzeko arduraduna.

d) Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak sei hilean behin, ekainaren 30a baino lehen eta abenduaren 31a baino lehen, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Liburutegi eta Lege Gordailu Zerbitzura bidaliko ditu sartutako Lege Gordailuko materialaren katalogoaren kopia eta eguneratzeak, bai eta musika-dokumentazio horren estatistika-txosten bat ere.

mediante Depósito Legal. A la hora de procesar dichos fondos se seguirán las normas standard de catalogación y las recomendaciones técnicas que pudiera remitir la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal a través del Servicio del Libro y Bibliotecas de Bibliotecas y Depósito Legal.

c) Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa conservará como fondo separado el material ingresado por Depósito Legal que corresponde a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, encargándose de designar los locales y mobiliario adecuado para el correcto depósito y conservación de los fondos entregados, realizar la custodia de estos fondos y facilitar su consulta a los posibles usuarios que puedan acreditar un interés investigador. Sin perjuicio de las superiores facultades que a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi corresponden respecto a dicho material, Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa se erige en responsable de una conservación correcta de dichos fondos.

d) Corresponde a Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa remitir semestralmente, antes del 30 de junio y antes del 31 de diciembre, al Servicio de Bibliotecas y Depósito Legal del Departamento de Cultura y Política Lingüística copia y actualizaciones que vaya produciéndose en el catálogo del material del Depósito Legal ingresado, así como un informe estadístico de dicha documentación musical.

- e) Fundación ERESBIL- Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak konpromisoa hartzen du Bilgunea – Euskadiko Liburutegien Katalogo Kolektiboa egiten parte hartzeko, gutxienez urtean behin katalogo bibliografikoaren kopia bat emanaz. Entrega hori Liburutegi eta Lege Gordailu Zerbitzuarekin unean-unean adosten den formatuan egingo da, eta, prozesamendu teknikoaren ondoren, Euskadiko Liburutegien Katalogo Kolektiboan sartuko da.
- f) Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzarako sarbidea emango du, Z39.50 protokoloaren bidez, katalogo osoko erregistroak kontsultatu eta atzematera, urrunetik konektatuz.
- g) ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioak akordio horren aipamen bat sartuko du musika-informazioa eta haren produktuak zabaltzeko sortutako literaturan
- e) Fundación ERESBIL- Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa se compromete a participar en la elaboración de Bilgunea – Catálogo Colectivo de Bibliotecas de Euskadi mediante la entrega con periodicidad mínima anual de una copia de su catálogo bibliográfico. Dicha entrega se efectuará en el formato que, en cada momento, se acuerde con el Servicio de Bibliotecas y Depósito Legal, y, tras su procesamiento técnico, quedará incorporado a Bilgunea – Catálogo Colectivo de Bibliotecas de Euskadi.
- f) Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa dará acceso a la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal, mediante conexión remota a través del protocolo Z39.50, a la consulta y captura de registros de su catálogo completo.
- g) Fundación ERESBIL- Archivo Vasco de la Música/ERESBIL- Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa incluirá una mención de este acuerdo en la literatura producida para difundir la información musical y sus productos.

**Hirugarrena. - HITZARMENAREN JARRAIPENA KONTROLATZEA.**

1.- Lankidetzaz Hitzarmen honen Jarraipen Batzorde Mistoak sortuko da.

2.- Batzorde Misto hori gehienez ere lau kidek osatuko dute, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren bi ordezkariak eta ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-

**Tercera. - SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL CONVENIO.**

1.- Se crea una Comisión Mixta de Seguimiento del presente Convenio de colaboración.

2.- Dicha Comisión Mixta estará compuesta por un máximo de cuatro miembros, dos en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y otros dos en representación de Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la

Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioaren bi ordezkariak. Honako hauek dira kideak:

a) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzako Liburutegien eta Lege Gordailuaren Zerbitzuaren arduraduna, batzordeburu izango dena.

b) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzako Liburutegien eta Lege Gordailuaren Zerbitzuko teknikari bat.

c) ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioaren Teknikaria.

d) Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa arduraduna, Batzordeko idazkari izango dena.

3.- Batzordeak zeregin hauek izango ditu:

a) Lankidetzaren Hitzarmen honen ondoriozko ekintzak dinamizatu, haien jarraipena egin eta ebaluatuko dituen organoa izatea.

b) Txostenak eta proposamenak helaraztea hitzarmenaren sinatzaileei.

c) Hitzarmena eta hartutako konpromisoak bete egiten direla zaindu eta kontrolatzea.

d) Sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

4.- Batzorde Mistoaren funtzionamendu araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoentzat aurreikusitakoa izango da. Nolanahi ere, Batzorde Mistoak bere barne funtzionamendurako arau propioak ezar ditzake, batzordeburuari eta idazkariari esleitutako erantzukizunak txandakatzeko aukera barne.

Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa, siendo sus integrantes los siguientes:

a) La persona responsable del Servicio de Bibliotecas y Depósito Legal de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Departamento de Cultura y Política Lingüística, la cual ejercerá la presidencia de la Comisión.

b) Una persona de nivel técnico del Servicio de Bibliotecas y Depósito Legal de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

c) Una persona técnica designada por Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa.

d) La persona responsable de Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa, que ejercerá las labores de la Secretaría de la Comisión.

3.- Dicha Comisión tendrá las siguientes funciones:

a) Ser el órgano de dinamización, seguimiento y evaluación de las acciones derivadas del presente Convenio de Colaboración.

b) Elevar informes y propuestas a las personas firmantes del mismo.

c) Vigilar y controlar la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos.

d) Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse.

4.- El Régimen de funcionamiento de la Comisión Mixta será el previsto para los órganos colegiados en la Ley 40/2015, de 10 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, sin perjuicio de que la Comisión Mixta pueda adoptar sus propias normas de funcionamiento interno, incluida la posibilidad de alternar el ejercicio de las

responsabilidades asignadas a la Presidencia y a la Secretaría de la Comisión.

5.- Batzordea Aldeetako batek eskatzen duen guztietan bilduko da, eta, nolahi ere, urtean behin gutxienez.

5.- La Comisión se reunirá siempre que lo solicite alguna de las Partes y, en todo caso, al menos, una vez al año.

#### **Laugarrena.- INTERPRETATZEA ETA ALDATZEA.**

Hitzarmen honetatik eratorritako interpretazio arazoak, bai eta hitzarmena aplikatzean sor daitezkeen eztabaidak ere, hitzarmenaren Alde sinatzaileek ebatziko dituzte elkarrekin adostuta Jarraipen Batzordean, Alde sinatzaile bakoitzak eskumen eskusiboari esleitutako gaitan dituen ahalmenak eragotzi gabe.

#### **Cuarta.- INTERPRETACIÓN Y MODIFICACIÓN.**

Las cuestiones de interpretación que se deriven del presente convenio, así como las controversias que puedan suscitarse con motivo de su aplicación, se resolverán por las Partes firmantes del convenio de mutuo acuerdo, en el seno de la Comisión de Seguimiento, sin perjuicio de las facultades de cada Parte firmante de las materias atribuidas a su exclusiva competencia.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.g) artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmena ahobatezko akordioaren bidez aldatu ahal izango da, Aldeek hala eskatzen dutenean. Horretarako, dagokion eranskina formalizatu eta atxikiko diote hitzarmenari.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 49, letra g, de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Convenio podrá ser modificado mediante acuerdo unánime de los firmantes cuando las Partes lo requieran, mediante la formalización de la correspondiente adenda que se incorporará al mismo.

#### **Bosgarrena.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Lankidetzaz Hitzarmen honek eragina izango du sinatzen den egunetik aurrera eta lau urteko iraupena izango du. Aurreikusitako apea amaitu aurretik edozein unetan erabaki ahalko da beste lau urtez luzatzea, baldin eta hitzarmena iraungi baino bi hilabete lehenago Aldeetako edozeinek salatzen ez badu.

#### **Quinta. - VIGENCIA DEL CONVENIO.**

El presente Convenio de Colaboración surtirá efectos a partir de la fecha de la firma y tendrá una duración de cuatro años, pudiendo acordarse su prórroga en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto por un periodo de otros cuatro años, salvo denuncia de cualquiera de las Partes con antelación mínima de dos meses a la fecha de expiración.

#### **Seigarrena.- HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK.**

Hitzarmen hau azkendu egingo da haren xedea osatzen duten jarduketak betetzen badira edo hitzarmena suntsiarazteko kausarik badago:

#### **Sexta.- CAUSAS DE EXTINCIÓN.**

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las siguientes causas de resolución:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea luzapenik adostu gabe.

b) Aldeen ahobatezko erabakia.

c) Hitzarmeneko klausulak ez betetzea. Kasu honetan, Aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen Aldeari, epe jakin batean bete ditzan bete gabetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan adierazitako epean betetzen ez baditu, errekerimendua egin zuen Aldeak hitzarmena suntsiarazitzat joko du eta hala jakinaraziko dio beste Aldeari.

d) Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen epai judiziala.

e) Ordenamendu juridikoan aurreikusten den bestelako edozein arrazoi.

Lankidetzaren Hitzarmena azkentzean likidatu egingo da, Alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko. Horretarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutako bete beharko da.

Eta aurretik azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, Lankidetzaren Hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El mutuo acuerdo de las Partes.

c) El incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo. En este caso, cualquiera de las Partes podrá notificar a la Parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la Parte que lo dirigió entenderá resuelto el convenio y así se lo hará saber a la otra Parte.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el ordenamiento jurídico.

La extinción del presente convenio dará lugar a la liquidación del mismo con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las Partes, para lo que se estará a lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector, Público.

Y en prueba de conformidad con todo lo anteriormente expuesto, firman este Convenio de Colaboración por duplicado, en el lugar y fecha arriba indicados.

**D. Ibone Bengoetxea Otaolea**

**JAURLARITZAKO LEHENENGO  
LEHENDAKARiordea eta  
KULTURA eta HIZKUNTZA  
POLITIKAKO SAILBURUA**

**Dn. Pedro María Leñena Mendizabal**

**ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL  
ARTXIBOKO ZUZENDARIA**

**VICEPRESIDENTA PRIMERA DEL  
GOBIERNO Y  
CONSEJERA DE CULTURA Y POLÍTICA  
LINGÜÍSTICA**